

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0426

GAIA: BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA 2025

ESPEDIENTEA: 2025UDIR0001

INTERESDUNA: BEHEKO ERROTA ESKORIATZAKO MUSIKA ELKARTEA (IFK: G20161204)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 80.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du BEHEKO ERROTA ESKORIATZAKO MUSIKA ELKARTEA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura batzordeak egindako proposamenaren arabera, idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako fiskalizazio txostena ikusita, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta BEHEKO ERROTA ESKORIATZAKO MUSIKA ELKARTEA-ren (IFK: G20161204) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- BEHEKO ERROTA ESKORIATZAKO MUSIKA ELKARTEA-ri 80.000,00 €-ko dirulaguntza ematea elkarteak 2025 urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 80.000,00 €-ko gastua konprometitzea, 0400.481.326.10.01 partidaren kontura aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko partidari egozte.